

Kultura-kudeaketa Beran: eredu parte-hartzailea

Jon Abril Olaetxea

Kultura-kudeaketan aditua, Berako kultura-zinegotzia

Beran (Nafarroa Garaia) 1979ko hauteskundeen ondotik udal parte-hartzailea eratzeke asmoa agertu zuten orduko agintariek, batzorde irekien bidez lan eginez, zinegotziek eta herritarrek zein bertzelako agente sozialek parte hartzen zuten udaleko batzordeetan. Baina hasierako ilusio hura eta herritarren parte-hartzea apalduz joan zen. Udalak berak ere ez zuen aparteko lanik egin hori sustatzeko. Dinamika hori laster desagertu zen, nahiz Kultura Batzordeak, nola edo hala, funtzionamendu-modu horri eutsi zion. Artean ez zen kultura-mugimendu handirik herrian, eta erakunde guti zegoen kulturgintzan lanean ziharduena. Halere, 99ko udal-hauteskundeetan Herriko Etxean aldaketa politiko nabarmena gertatu zen eta horrek ere gauzak erraztu zituen, kultura-arloari ere garrantzia handiagoa eman baitzitzaion. Beraz, herritarrek kultura sortzea, agente aktiboak izatea bilatzen da, zuzenean parte-hartzea, ikusle soila izatetik harago.

In Bera, Navarre, after the 1979 elections the authorities at that time came out in favour of coming up with a participation-based municipal government by working with publically open committees in which town counsellors, citizens, as well as members of grass-roots organizations could take part in municipal committee meetings. However, the heady feeling at the outset as well as participation of citizens gradually died down. The Town Council itself did little to foment such a policy. That initiative soon disappeared altogether although the Culture Commission somehow held on to such an arrangement. In the meantime, there was no big cultural movement in the town and there were few organizations concerned with cultural matters. Nevertheless, after the 1999 municipal elections, there was a pronounced political shift in the Town Council which facilitated things and which lent greater importance to cultural affairs. Thus, creation of culture by citizens is sought by activists through direct participation which goes beyond being a mere spectator.

1. Sarrera

1979ko hauteskundeen ondotik udal parte-hartzailea eratzeko asmoa agertu zuten orduko agintariek, batzorde irekien bidez lan eginez, zinegotziek eta herri-tarrek zein bertzelako agente sozialek parte hartzen zuten udaleko batzordeetan. Baina hasierako ilusio hura eta herritarren parte-hartzea apalduz joan zen. Udalak berak ere ez zuen aparteko lanik egin hori sustatzeko. Dinamika hori laster desagertu zen, nahiz Kultura Batzordeak, nola edo hala, funtzionamendu-modu horri eutsi zion. Artean ez zen kultura-mugimendu handirik herrian, eta erakunde guti zegoen kulturgintzan lanean ziharduena.

Edonola ere, aparteko dinamikarik gabe ere, herriko kulturgintza guztia Kultura Batzordetik sortua zen, eta bertatik dinamizatzen zen herria. Udalak diruz laguntzen zituen ekitaldi hauek, eta taldeek egiten zuten lan. Taldeetan, halere, ez zegoen ez ikuspegi orokorrik, ez plangintza zehatzik. Urtean finko xamar ziren ekitaldiak egiten ziren, gehienbat data seinalatu batzuen inguruan, kultura-asteak eta antzekoak, gehienbat. 80ko hamarkadako dinamika, funtsean, hori izan zen. Zeuden talde bakanek ez zuten espezializaziorik, kultura orokorrean lantzen zuten. Baina 90eko hamarkadaren lehenbiziko erdian kultura-mugimenduan nolabaiteko bizkundera gertatu zen, eta talde ugari sortu zen herrian, bakoitza arlo batean espezializatuta kultura-eskaintzaren dibertsifikazioa ugarituz. Sasoi hartan bertan (1991ko udaberrian) kultur etxea zabaldu zen, pertsonalik gabe, eta inolako programazio eta erabilerarik gabe. Halere, herriko kultur taldeek behar zutenean erabil zezaketen, eta pixkanaka bere erabilera handitzen joan zen. Edonola ere, eskasa eta ezegokia izan zen lehenbiziko urteetako kudeaketa.

Baina kultura-ekitaldiak eta taldeak ugaritzearekin batera, deskoordinazioa handituz joan zen. Ekitaldiak egin egiten ziren, diru-laguntzak eman, baina ez zegoen inolako politika definiturik, ez diagnostikorik, ez ebaluaziorik, ez helburu eta norabiderik, ezta diru-laguntza publiko horien jarraipenik ere. "Egiteagatik egin" dinamikan guztiz sarturik zegoen kultura-dinamika, eta udalak berak ere ez zion aparteko garrantziarik ematen horri.

1997an hainbat talde (dinamikarik handiena zutenak) elkartu eta koordinazioaren zein plangintzaren beharra azpimarratu genuen. Kultura-politika baten diseinua gero eta beharrezkoagoa zen, eta hori guztia koordinatzeko beharrezko tresnak ezartzea eskatu genuen. Udalari egitasmo zehatz bat aurkeztu genion: kultura-dinamizatzaile bat kontratatu zezala, herriko kultura-talde guztiak koordinatuko zituen, politika jakin batzuei jarraiki dinamizazio-lan bat egin zezala, eta jarraipen zehatz bat egitea.

Udalak proposamena onartu zuen, baina ez zuen gauzatu. Kultura-eragileoi erreakzionatzea kostatu zitzaigun. Halere, lanean segitu genuen, eta planteamendu horien defentsa egin genuen. Egoera txartzen joan zen, dinamika eta ekitaldien ugaritzearekin deskoordinazioa gero eta handiagoa zelako, ekitaldiak egun berean egiten ziren, ez zegoelako inolako iparririk ez irizpiderik programazioaren diseinuan.

1998ko udazkenean, berriz ere udalari kultura-dinamizatzailearen beharra agerian jarri zitzaion. Taldeen arteko tentsioa eta desadostasunak (gehlenbat norberak bere interesak defendatzen zituelako, baturarik ez zegoelako) ez zuen

batere laguntzen. Edonola ere, udalak deialdia onartu zuen, eta 1999ko otsailaren hasierarekin kultura-dinamizatzaile bat aritu zen Berako Udalarentzat lanean.

Kultura-dinamizatzailea lanean hastearekin errotik aldatu zen egoera. Prozesu honetan guztian paper estrategikoa jokatu du kultura-dinamizatzaileak: politikak finkatzea, metodologia jakinak definitzea, estrategiak zehaztea, eta batez ere koordinazioa eta jarraipena. Horren ondorioz plangintzekin lan egiten hasi zen batzordea. Ezin aipatu gabe utzi, halere, 99ko udal-hauteskundeetan Herriko Etxean aldaketa politiko nabarmena gertatu zela, eta horrek ere gauzak erraztu zituela, kultura-arloari ere garrantzia handiagoa eman baizitzaion.

Politika horretan, parte-hartzea izan da ardatz nagusia. Plangintzaren diseinuan ez ezik, prozesu guztietan herritarren parte-hartzea lehenetsi da: diseinuan, ebaluazioan eta garapenean. Herritarrek parte hartzen duten ekitaldiek dute lehentasuna programazioa diseinatzerakoan. Hala, egungo gizartean gailendu den ikuskariaren kultura eta kontsumo-kultura baino, sortzea bultzatzen da Berako Kultur Batzordean. Beraz, herritarrek kultura sortzea, agente aktiboak izatea bilatzen da, zuzenean parte-hartzea, ikusle soila izatetik harago.

Prozesu honetan guztian, berebiziko garrantzia izan zuten 2002ko ekainean antolatu genituen Gogoeta Jardunaldiek. Ia sei hilabeteko prozesua izan zen. Batzordetik, era boluntarioan, azpibatzerde bat osatu zen batzordearen egin beharrak, funtzionamendua, helburuak, eta politika, oro har, definitzeko. Oinarrizko dokumentazioa prestatu zen, herriko 60 agente baino gehiagori banatu zitzaion, ekarpenak egiteko epea eman zitzaion, eta ekarpen guztiak eztabaidatu ziren ekaineko bi larunbatetan egindako jardunaldietan. Jardunaldi horietan 35 pertsonak parte hartu zuten. Batzordearen beraren definiziorako ez ezik, bertako pertsonen eta taldeen arteko harremana sendotzeko ere guztiz baliagarria izan zen prozesua.

Batzordearen osaketa

Kultura Batzordearen helburuetako bat herriko kultura-talde eta agente guztiak biltzea izan da. Herri-mugimendu guztia batzea lortu du, eta bertan daude ordezkatuak herriko kultura-talde guztiak, zein ikastetxeak eta euskaltegia. Politikoei dagokienez, udaleko talde politiko bakoitzetik ordezkarri bana joaten da (azkeneko legegintzaldi guztietan hiru zinegotzi egon dira), eta horietako bat da batzordeburua. Erakundeetatik nahi hainbertze pertsona joan daitezke batzordera. Gainerako herritarrek ere parte har dezakete. Erabaki guztiak adostasunez hartzen ahalegintzen da, eta hori lortzen ez denean, botazio bidez egiten da. Erakunde bakoitzak boto bana du, eta alderdi politiko bakoitzak ere bana. Herritar gisa joaten direnek hitzerako eskubidea duten arren, ez dute botorik. Taldearen eragile eta bateratzaile lanetan aritzen da kultura-dinamizatzailea.

Honakoak dira Berako Kultura Batzordea osatzen duten talde eta erakundeak:

- Berako abesbatza.
- Uxua emakume-taldea.
- Ertz arte gunea: artista-kolektiboa, arte esperimentalak jorratzen duena.

- Guraso elkarteak: ikastola, eskola publikoa eta Jesusen Bihotza ikastetxea.
- Gure Txokoa elkarteak: kulturgintza orokorrean.
- Bidasoa Ikerketa Zentroa: historia bilketa (eskualde mailakoa).
- Lamixine BAT: antzerki-taldea.
- Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola.
- Berako Udaleko Euskara Batzordea.
- Espidobaita elkarteak: kultura orokorrean.
- Pintura-taldea: marrazketa- eta pintura-ikastaroak eta erakusketak antolatzen dituen kolektiboa.
- Bortzirietako IKA euskaltegia.

Batzordearen egitekoak

Batzordearen egitekoak dira herriko kultura-eskaintza egitea; dauden hutsuneak antzematea eta horiei irtenbideak planteatzea; kulturarako aurrekontua kudeatzea, eta egitasmo berriak aurrera eramatea.

Batzordeak bere egitasmoetarako honako helburuak finkatuak ditu:

- Herriko kultura-talde guztiek Kultura Batzordean parte har dezaten ahaleginak egitea.
- Kultura-programazioa orekatua edo askotarikoa sortzea: publiko guztiei eskainia eta arte-diziplina guztiak aintzat hartuta.
- Kulturarekiko gogoia piztea.
- Bide berriak irekitzea, Kultura Batzordetik egitasmo berriak sortuz, adibidez, erakundeen arteko egitasmoak suspertuz.
- Euskarazko kultura-produkzioa eta sormena bultzatzea.
- Euskararen erabilera bultzatzea kulturaren alorrean.
- Herriko taldeen sormen-lana bultzatzea.
- Herritarren parte-hartzean eragitea.

Lan-metodologia

Kultura Batzordeak egoeraren diagnostiko bat egiten du (kultura-dinamizatzaileak eta -zinegotziak proposatua, eta taldeen ekarpenekin osatua eta eztabaidatua). Diagnostiko horretatik abiatuta, hurrengo urterako helburuak finkatzen dira, non eragin nahi den, antzemandako hutsuneak eta indarguneak zein diren haintzat hartzen da. Helburu horiek betetzeko plangintza diseinatzen da, eta diseinu horretan oinarrituta, talde bakoitzak bere proposamenak egiten ditu (berak antolatuko dituen ekitaldiak, zein Batzordeak edo bertze talderen batek antolatuko dituenak). Proposamen horiek guztiak biltzen dira, eztabaidatu eta zehazten dira. Horrekin guztiarekin urteko aurrekontua zehazten da, gero Udalaren aurrekontu orokorrean sartzeko.

Plangintza

Arestian agertu bezala, plangintza diseinatzeko tenorean herriko taldeen zein artisten sormenak du lehentasuna, herritarren parte-hartze aktiboa bilatzen da, eta eskaintza hori ikuskariekin orekatzen da. Adin-tarte guztietara iristen eta kultura-arlo guztietan gutieneko batzuk osatzen ahalegintzen gara. Honakoak dira programaren ardatz nagusiak:

Antzerkia: interbentzioa hezkuntza arautuan eta hezkuntza araututik kanpo; eskola-antzerki jaialdia; helduen tailerrak; antzerki-talde profesionalen eta amateurren programazioa; kafe-antzerki beka eta kafe-antzerki zikloa.

Literatura: irakurzaletasuna bultzatzeko ekitaldiak (liburutegiarekin eta Euskal Idazle Elkartearekin batera); ipuin-lehiaketak; liburu-truke azoka...

Musika: estilo ezberdinen programazioa; ikastaroak; herriko musika-taldeei babesa (entseatzeko lokalak, kontzertuak...). Musika esperimentalak leku berezia du programazioan.

Dantza: ikastaroak (euskal dantzak, jazz dantzak, munduko dantzak...); Euskal Herriko zein munduko folklore-emanaldiak; Escena jaialdia (dantza garaikidea, klasikoa, flamenkoa...).

Bertsolaritza: bertso-saioak, bertso-eskola, bertso-paper lehiaketa...

Erakusketak: arte plastiko ezberdinen erakusketak programatu, sortzaileei aukerak eman, erakusketak sortu.

Haur-programazioa: haurrentzako ikuskizunak eta tailerrak.

Ikastaroak eta hitzaldiak

Zinema: zine-klubeko programazioa eta filme laburren lehiaketa.

Ohiturak-bestak: herriko besten antolakuntza (inauteriak, eguberriak, Sanesteban bestak...); Lurraren Eguna (artisautza eta bertako produktuen azoka).

Balorazioa

Orain arteko ibilbide honetan badira hainbat alderdi nabarmentzekoak, zein hobetu beharrekoak. Esperientzia aberasgarria izan da guziz. Herriko kultura-talde guzien inplikazioa erabatekoa izan da prozesuan. Honekin guztiarekin herriko programazioaren eta eskaintzaren hobekuntza nabarmena izan da. Metodologia honekin etengabeko gogoeta eta ebaluazioa dira lan-tresna. Gainera, ikuspegi bakarra baino (teknikariarena edota zinegotziarena), kultura-arloko agente guztiena gailentzen da. Aldi berean, herri-mugimenduen sendotzea eta berrien sortzea ahalbidetzen duen eredia da honakoa, herritarren inplikazioa lortzearekin batera.

Lan-modu honek, edonola ere, ahalegin gehiago eskatzen du, nekezagoa da eta zailagoa da, bereziki teknikariarentzat eta politikariarentzat. Prozedimenduak mantsoagoak dira, eta zenbait talderen errezeloa eta beldurra ere eragiten du maiz (bereziki boterean dauden politikariek identifikatzen direnak, edo hauekiko erabateko kontrako jarrera dutenak). Bertzalde, politikariak aldiro konbentzitu beharra dago (lau urterik behin aldaketak izaten dira), eta metodologiarekiko

agertzen dituzten zalantzak argitu (botere guztia eurek edukitzera ohituta dauden politikarien ereduak...). Taldeentzat ziurtasuna eragiten duen neurrian, gehiegizko erosotasunean erortzeko arriskua dago, eta administrazioarekiko mendekotasuna handiegia da.

Esperientziaren hedatzea

Kultura Batzordearen esperientziatik abiatuta, udaleko gainerako batzordeetara zabaldu da funtzionamendu-eredu hau legegintzaldi honetan. Batzorde guztiek (herritarrek, politikariek eta teknikariek osatuak) beren urteko plangintza eta aurrekontua prestatzen dute. Batzordez batzorde, zeregin hauek ditu batzordeetako bakoitzak. Batzordeburua nor den, funtzionamendua dinamikoagoa da:

Hirigintza eta Herri-lanak: herri-lanetako urteko inbertsio nagusiak zehaztu; obren kontrola eta jarraipena; araudi berrien sortzea (trafikoa, badoak...). Esperientzia puntualak egin izan dira orain arte (batik bat hirigintza-planaren diseinuan...).

Mendia-ingurumena: mendiaren kudeaketa orokorra (plantazioak, entresakak, loteak...), ingurumen hezkuntza-programak landu...

Kirola: kirol-talde guztiekin batera urteko plangintza zehaztu, taldeen diru-laguntzak kudeatu, kirol-ikuskizunak antolatu... Aitzineko legegintzaldian urratsen bat eman zen, baina ez zen esperientzia sendotu.

Ogasuna: diru-kontuen jarraipena; kontu eta tasen berrikuspena...

Nekazaritza, merkataritza, industria eta turismoa: arloz arloko urteko plangintza, sustapen-neurriak... Sektoreko jendearen parte-hartzea (baserritar-rrak, landetxeetako arduradunak, merkataria, nekazaritza ekologiko azoka...).

Euskara: urteko plangintza, Mankomunitatearekin harremana, Bai Euskarari planaren garapena... euskalgintzako erakunde guztiek parte hartzen dute. 90eko hamarkadaren hasieran, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen sorrerarekin sortu zen batzorde hau, eta eredu parte-hartzaileari jarraitu dio.

Gizarte-gaiak: urteko plangintza eta programak: emakumea (emakume-taldearekin elkarlanean); hezkuntza (guraso-elkarteekin); boluntariadoa (3. adinari zuzendua); gaztedia (droga-mendekotasun eta aisialdiko plana, guraso-elkarte, gazte-asanblada eta bertze hainbertze herritarrekin batera); etorkinak (sortzez beratarrak, etorkinak, paperik gabeak...). Arlo honetan lehenbiziko esperientzia izaten ari da, arrunt aberasgarria.

Zenbait datu

Batzorde hauetan guzietan 120 herritar baino gehiago ari da lanean, 3.700 biztanleko populazioaren artean (% 3,25 inguru). Horietako anitzek, gainera, erakunde handiagoak ordezkatzen dituzte (bereziki kultura, kirola eta gizarte-gaietan).

Aitzinera begira

Kultura Batzordean Kulturaren Agenda 21 herrian garatzea litzateke bidea (oraingo bidean sakonduz), eta herritarren parte-hartzea, zein publiko berriak lortzeko lanean jardutea. Garapen iraunkorraren ideia kultura-kudeaketara ekartzea da Kulturaren Agenda 21 delakoaren zentzua: demokrazia parte-hartzai-learen ideian sakontzea, oreka bilatzea, bertakoa lehenestea, ekologismoa...

Udaleko gainerako sailetan batzorde parte-hartzaileen filosofia finkatzea, funtzionamendu egokia lortzea (batzorde guzietan), eta aurrekontu parte-hartzaileak diseinatzea litzateke helburua.

Azken ondorioa

Lan egiteko modu hau ez da gogoeta edo estrategia sakon batetik abiatu, naturalki sortua baizik, lan egiteko modurik logikoena herritarrekin elkarlanean aritzea guztiz zabaldua dagoen ikusmoldea baita. Bertze kontu bat da hori nola garatzen den eta zenbateraino. Hor dago alderdien arteko ezberdintasuna (gure udalean, bertze anitzetan, aldiz, pertsonen borondatean dago gakoa, ez hainbertze alderdi politiko jakin batzuetakoa izatean), baina ateak zabalik egon behar duela argi dago. Bistako emaitza bat utzi du honek guztiak: gatazken kudeaketa egokiagoa eta herriko giroa hobea, eta konfiantza handiagoa taldeen eta pertsonen artean.

Bibliografia

- Kaleidos.red Fundación (2003): Equipamientos municipales de proximidad. Plan estratégico y de participación, Trea, Gijón.
- Equipo claves: Gestión participativa de las asociaciones (1998): Editorial Popular, Madrid.
- Puig, T. (1994): *La ciudad de las asociaciones. Dirigir, gestionar y animar las asociaciones*, Editorial Popular, Madrid.
- Hainbat egile (2000): *Cultura y poder local*, Diputació de Barcelona-Editorial Milenio, Bartzelona.
- Hainbat egile (2001): *Cultura, Desarrollo y Territorio*, Xabide, Gasteiz.
- Lopez de Aguilera, I. (2000): *Cultura y Ciudad. Manual de política cultural municipal*, Trea, Gijón.
- Ander Egg, E. (1994): *La práctica de la Animación Sociocultural y el Léxico del Animador*, Ediciones Ciccus-Icsa, Buenos Aires.

